

ARITZETA eta ARITXULEGI.—Donostiatik Bilbo aldera autopistaz irtetean guziok irakurtzen dugu *Arriceta*. Ez dakigu zergatik, baina euskararik ez dakitenen artean bada *r* soila *rr* doble bihurtzeko joera. Gainera ezagunagoa zaie (*h*)arri = *piedra*, eta ez hainbeste (*h*)aritz = *roble*. Bestalde leku izenak esan nahira hurbildu nahizko joera dute eta etimologia okerretan erortzen dira maizenik. *Arriceta* jarri den toki horri, inguruko euskaldunek, *Aritzeta* deitzen diote. Egotez, Usurbilgo mugan dago eta Luis Murugarrenen *Usurbil* (1975) monografiaren 216. orrialdean agertzen da *Ariceta* bezala 1625 eta 1864. urteetan dokumentaturik dagoenez.

E. Knörr-ek onomastikazko txosten batean ongi zionez: «*Arriceta* nardagarria, milaka gidarik egunero ikusten dutena, 1625ean *Ariceta* zena». Egia esan, hizkuntz ikerketari eta tokiaren historiari ez diote onik egiten holako jarrerak. Diputazioan eta Jaurlaritzan bidez eta garraioez arduratzen direnek badute hor zereginik.

Gauza bera gertatzen da Aritxulegikin ere. Bilbo-Behobia autopistako Aritzeta haina erabiliko ez bada ere, Oiartzun eta Lesakaren mugan egoteak, auto-bidea igarotzen den lepoan gainera, ez da guti erabili beharrekoa. Zenbait gida-liburutan *Arritxulegi* eta *Arritzulegi* irakurria dugu. Oraindik denbora guti dela, *Egan* argitaratzen den inprimategitik egin ziguten galdea, ea genkien era jatorra zein zen: *Aritxulegi*, esan genien. Baina, gero jakin genuenez, bakoitzak bere teoriak omen dituela eta, egile harek zegoenean uzteko agindua eman omen zuen: *Arritxulegi*.

Oiartzungo toki izenak aspaldi bildu zituen Adolfo Leibarrrek *Aritxulegi* zekarren, *Basarriren bertso-sorta*-n (1950) ere hala zekarren, bertako seme izan eta historiarik sakonena idatzi zuen Manuel Lekuonak ere, *Del Oyarzun antiguo* (1959) obraren lehen edizioako 36, 215 eta 217. orrialdeetan *Aritxulegi* (*Arichulegi*) dakar, eta gauza bera L. Silván-ek *Oyarzun* (1970) monografiaren 34. orrialdean.